

# iritzia

## gaurko...

### ...elkarrizketa



**Ruben Ziordia**

GASTEIZKO BIZIKLETEROAK  
ELKARTEKO KIDEA

*«Gasteiz  
bizitzeko  
egokiagoa izatea  
da gure  
helburua»*

Gasteizko Bizikleteroak  
taldea sortu da, hirian  
bizikleta gehiago  
erabiltzeko asmoz.

#### ■ Nondik dator elkartearen sortzeko ideia?

Lagun talde bat elkartu ginen, eta hiriarentzat bizikletaren erabilera bultzatzea garraibide moduan interesgarria dela pentsatu genuen. Antzeko elkarteak daude Iruñea, Donostia eta Bilbon. Arraroa da Gasteizen, bizikletaren erabilera betidanik bultzatu duen hirian, horrelako elkarterik ez egotea.

#### ■ Zein dira taldearen asmoak eta helburuak?

Gure helburuak pedagogikoak eta dibulgatzaileak dira. Lehena bizikletaren erabilera bultzatzea, noski. Baina baita bizikletaren erabilera horretan jendea hezitzea ere, bizikleta hirian nola erabili behar den erakustea. Gure asmoa hiria hobetzea da, bizitzeko egokiagoa eta ekologikoagoa izatea.

#### ■ Gasteiz badiu bidegorriak; zer iruditzen zaizkizue?

Ezkertzekoa da bidegorriak izatea. Uste dut bidegorri gehien dituen hiria Gasteiz dela, baina egia da bidegorri horiek gutxi erabili eta zaintzen direla. Udalarekin zein diputazioarekin kolaboratzeko asmoa dugu. Zenbat eta txirrindulari gehiago izan, orduan eta behartuago egongo dira erakundeak bidegorriak prestatzera.

**Ivan Santamaria**

Gasteiz

### ...esaera

«Seme-alabarik nahi ez duen herriak jai dauka»

### ...hizpideak

## Kaosa Bilbo eta Behobia lotzen dituen A-8 autobidean

■ Elurrak eta izotzak arazo ugari eragin zituen atzo Euskal Herriko errepideetan. Bilbo eta Behobia lotzen dituen A-8 autobidean kaosa eragin zuen. Donostia eta Orio arteko bidea egiteko hiru ordu eta erdi behar izan zituzten goizean milaka herritarrek. Arratsaldean, berriz, Donostia eta Irun arteko autobide zatia moztu behar izan zuten. Europistasek, A-8a kudeatzeko duen enpresak, emandako informazioaren arabera, kamioiek izandako istripuek eragin zituzten atzoko arazoak.

A-15 (Irurtzun-Andoain autobidea) eta N-1 errepidean ere (Irun eta Madril lotzen dituen errepide nazionala) arazo ugari izan ziren atzo. Gipuzkoa eta Nafarroa lotzen dituen autobidea moztuta egon zen eguneko zenbait

mementotan. N-1 errepidean, berriz, Etxegaraten izan ziren arazo gehienak.

Aurten izandako bi elurteek, ordea, agerian utzi dute egungo bitarteko prebentiboak (gatza botatzeko kamioiak, errepidea garbitzen duten makinak...) ez direla nahikoak. Euskal Herriko errepide sare nagusian, A-15, A-8 eta N-1, arazo ugari sortu dituzte azken bi elurteek. Bi kasuetan errepide horiek itxi beharrean izan dira trafikoko arduradunak.

Euskal Herriko kamioizaleak kexu dira. Beraien esanetan, Hego Euskal Herrian gertatzen dira soilik arazo horiek. Ipar Euskal Herria zeharkatzen duen A-63 autobidean eta Europako gainontzeko errepideetan ez da horrelakorik gertatzen.

### Isunak abokatuei

■ Bezeroaren eskakizunari jarraiki itzulpen zerbitzua onartu ez duten zenbait abokatu euskaldunek 1.800.000 pezeta-ko isuna jaso dute (72.000 libera). Zenbaiti jadanik kobratu diete banketxeko kontutik.

Abokatuen Elkarteak babesa ukatu diela salatu dute: «Profesionalki zor zaiguna ukatu digute».

Arazoak bere horretan segitzen du; justiziaren euskalduntzeak ez du urratsik egin.

### Grebari taxuz heldu

■ Bizkaiko butano garraiolariek grebari ekin ziotenetik hamalau egun beteko dira gaur, eta oraindik ez da ikusten aterabide izpirik ere. Merkataritza Ganberaren bitartekaritzarekin, Elkartrans eta Sintrabi (Bizkaiko garraiolarien sindikatua) negoziazio mahaian eseri dira azken egunotan, baina ez diete oraindik heldu garraiolarien aldarrikapenei. Oinarrian garraiolariei Elkartransen ezarri nahi dien tarifa murrizketa

dago. Lanuztea gogortzen ari bada ere, Repsol ez da inon ageri, arazoa berea ez balitz bezala jokatzeko ari baita. Azken batez, Elkartrans tarteko konpainia bat besterik ez da.

Hornikuntza beharrek presionatuta, Ertzaintza butano garraioa bermatzen ari da. Baina hori baino beharrezkoagoa agian garraiolarien eskarrei taxuzko aterabidea ematea da. Orain arazoa arinki konpontzen bada, gerora berriz azalduko da eta.

### ...pertsonaiak



**JANUSZ SYMONIDES**

Unescoko demokrazia, bakea eta giza eskubideak saileko zuzendariak ingurugiro eskubidea giza eskubide bihurtzeko formulazioaz nazioarteko adituen etxabaida zuzenduko du Bilbon.



**LUIS FERNANDEZ**

• Athleticeko entrenatzailea pozik dago gaur egun duen taldearekin. Datorren denboraldian ez duela fitxaketarik egingo adierazi du, eta etorkizuneko ekipoa prestatzen ari dela.



**XANANA GUSMAO**

• Ekialde Timorko Fretilin gerrillako buruzagi ohiaren espetxealdia arintzea agindu du Indonesiako gobernuak. 20 urteko kartzela zigorra ari zen betetzen.

### ...datua

**20** urte beteko dira gaur Manu Legarreta-Etxeberria euskal presoaren espetxeratu zutela. Urtarrilaren 30ean Kiko Martinez Apestegiak ere 20 urte bete zituen.

### ...adierazpena

«Kirol munduan bakarrik al dago droga? Horrela bada, Frantzia paradisu bat da»

**Laurent Jalabert**

Txirrindularia

### ... seiko urrea

ANDRES URRUTIA

## Kukuen batzarra

**E**gunotan gure Euskal Herri hau batzarrik batzar dabilkigula ezin uka. Bateko zein besteko politiko, lagun, bazkide eta abarrekoei batzeari ekin diote, elkarri gauzak adierazteko premia ezinbestekoa izango balitz legez.

Irudi batez esateko, esan daiteke herriaren bizibidea arindu egin dela. Gobernu berria, gehiengo berria, ekitaldi berriak, halako «barriren barri» garamatza aspaldi honetan gure eguneroko ibiltze horrek.

Azkena, apartera joan gabe, Iruñean mamitu den udal hautetsien bilera. Bileraren ohargarria, izan ere, honako hau. Ez, oster, aurrekaririk gabekoa. Badi-rudi Euskal Herrian halako

gune erabakigarriak agerian direnean, herria batzeari ekiten diogula.

Bozketak izan eta gehiengoak bere hautetsiak bildu ditu, denon aurrean, herri honen eraikitze prozesuan beste pauso bat eman nahian. Erakunde hitza ere erabili izan da nonbait. Herria «erakundetu» beharrean omen gabiltza, herriaren zentzua gal ez dezagun.

Horretara, zer hobe



denok zuzenektok aukeratzen ditugun udal hautetsiak batzea baino? Hala egin da historian zehar, behin baino gehiagotan, herriaren defentsa eta babesean jardun behar izan denetan.

Modu berean gertatu zen Espainiako bigarren errepublikaren garaian edota Frantziaren ondorengo urteotan.

Oraingoan, hala ere, batzar horretara joan ez direnak kukuen batzarrera

bildu dira. Komunikabideek zabal deituta, noranahi barreiatu dituzte euren iritziak, bilera horren edukia gutxiesteko eta beheratzeko.

Egia esan, bestelako bilerak egin dute horiek, hain zuzen ere, komunikabideek antolatu dietena, bestearen gaineko iradokizunak plazaratzeko. Horren atzean, hala ere, sarri askotan kukuen batzarretan falta eta soberan dena: alboko eta auzokoa kritikatu eta norberarena azaldu ez.

Horrexegatik gara entzungai oraingo honetan, ea behingo batez kukuen batzar berri horrek azaltzen duen modu bateratu batez, herriaren etorkizunari buruz zer uste duen. Irrikan gaude.